

EAE-KO JAIÖBERRIEN SORTZETIKO GAIÖTASUNEN BAHEKETA-PROGRAMA

2021EKO MEMORIA

**JAIOPERRIETAN SORTZETIKO GAIXOTASUNEN BAHEKETA EGITEKO AHOLKU
BATZORDEA**

Batzordeburua: Itziar Larizgoitia andrea

Idazkaria: Ana Audicana andrea

Batzordekideak:

Jaioberrien Baheketarako Programaren koordinatzaileak

**Aitziber Perez Fernández andrea
Miguel Angel Cortajarena Altuna jauna
Ana Aguirre Unceta-Barrenechea andrea
Idoya Martínez Fernandez de Pinedo andrea**

Euskal Herriko Pediatria Elkartearen ordezkaria

Ignacio Díez López jauna

Ginekologiako eta Obstetriziako EAEko Erakundearen ordezkaria

Mercedes Fraca Padilla andrea

Osakidetzaren Osasun-Laguntzako Zuzendaritzaren ordezkariak

**Enrique Peiro Callizo jauna
Adelina Pérez Alonso andrea**

Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzaren ordezkariak

**Jose Antonio Municio jauna
Mercedes Espada Sáez Torre andrea
Nerea Ferrero Sáiz andrea
Maria Jesús Lázaro-Carrasco de la Fuente andrea**

EAE-KO AMAETXE PUBLIKO ETA PRIBATUEN ZERRENDA

Ospitale publikoak: Txagorritxu, Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Debagoiena, Zumarraga, Mendaro

Ospitale pribatuak: Quirón, Pilareko Ama Birjina Osasun Zentroa, Poliklinika Gipuzkoa, IMQ Zorrotzaurre eta San José klinika.

SARRERA

Txosten honetan, 2021ean EAeko Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programaren esparruan gauzatutako jarduerak laburbiltzen dira (Metabolopatia eta Hipoakusia Programa).

Halaber, datu soziosanitario interesgarriak ematen dira gure autonomia-erkidegoko ama-umeen egoera orokorraren ikuspegia zein den jakiteko. Informazio hori guztia programaren bidez kudeatzen den Jaioberrien Erregistro Ofizialetik eskuratu da.

Amaitzeko, Programaren berezko kalitate-adierazleak ere eskaintzen dira, eraginkorra den balioesteko.

Programak EAEn bizirik jaiotako haur guztien % 99,96ko estaldura lortzen du Metabolopatiaren programaren baheketarako, % 99,92koa Hipoakusiaren baheketaren I. faserako eta % 99,09koa II. faserako.

Emaitza biokimikoak azkar eskuratzeko eta, hala badagokio, tratamendua hasteari dagokionez, lortutako erantzun-denborak horrelako programetan lortu ohi dena baino askoz bizkorragoak dira eta, horrenbestez, antolaketa-diseinua baliozkoa dela erakusten du.

Gaur egun, jaioberrietan 12 gaixotasunen behaketa egiten da: *Sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia (MCAD), fibrosi kistikoa, zelula faltziformeen anemia, I. motako azidemia glutarikoa, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, astigar-jarabe gisako gernuaren gaixotasuna, azidemia isobalerikoa, homozistinuria, biotinidasa eskasia eta hipoakusia.*

EAeko Jaioberrien Baheketa Programa hautatu zuen 2013ko deialdian Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasunerako Ministerioak koordinatzen duen Gaixotasun Arraroen Estrategiaren Batzorde Institutuzionalak, gaixotasun arraroen jardunbide egokiak identifikatzeko, banatzeko eta hedatzeko, gainerako autonomia erkidegoek jarraitu beharreko eredu gisa.

2014ko martxoaren 20an, “Osasun Sistema Nazionaleko jaioberrien baheketa egiteko populazio-programaren informazio-sistema” osatzen duten oinarritzko gutxieneko datuak adostu ziren, Osasun Sistema Nazionalean jaioberrien baheketa egiteko populazio-programaren informazio-sistema garatzeko Osasun Publikoaren Batzordeko lan-taldeak proposatuta (talde hori autonomia-erkidegoetako ordezkariak osatzen dute-tartean EAekoek-, eta Osasun Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen du).

2014ko azaroaren 6an, BOEn argitaratu zen urriaren 31ko SSI/2065/2014 Agindua, zeinaren bidez aldatzen diren Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu-eskaintza

komuna eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak.

Jaioberrien baheketaren kasuan, bereziki nabarmentzen da garrantzitsua dela, alde batetik, informazio-sistema bat izatea, autonomietan eta Estatuan populazio-programa horiei behar bezalako jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, eta, bestetik, baita kalitatea kudeatzeko sistema bat ere, autonomia erkidego guztietan baheketa-prozesuak modu homogeneoan egiteko.

3.3.1. apartatuan, adierazita daude Osasun Sistema Nazionalaren oinarritzko zerbitzu-eskaintzaren barruko Jaioberrien Baheketako Populazio Programa osatzen dituzten gaixotasunak: sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, fibrosi kistikoa, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia, azidemia glutarikoa eta zelula faltziformeen anemia.

2015eko otsailean, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak Jaioberrien Baheketa Programaren Informazio Sistema jarri zuen abian (SICN).

2016an, Nafarroan eta Kantabrian jaiotako haurrak sartu genituen Jaioberrien Baheketa Programan eta honako gaixotasun hauen baheketa egin zen bi erkidegoetan: *Sortzetiko hipotiroidismoa, fenilzetonuria, kate ertaineko azil CoA deshidrogenasaren eskasia (MCAD), fibrosi kistikoa, zelula faltziformeen anemia, I. motako azidemia glutarikoa, kate luzeko azil CoA deshidrogenasaren eskasia eta biotinidasa eskasia.* 2021eko otsailetik aurrera, *astigar-jarabe gisako gertuaren gaixotasuna eta homozistinuria* gehitu zitzaizkion Nafarroako baheketari.

2017an, Hipoakusia sartu zen Jaioberrien Sortzetiko Gaixotasunen Baheketa Programan, eta jaioberrien datuak jaso ziren, Osasun Sailaren Erregistroan.

2017ko azaroan, Osasun Publikoaren Batzordearen barruan “Populazioaren baheketari buruzko txostena” eratu zen, eta SICNren lantaldea horren barruan txertatu zen.


2019ko maiatzean, Jaioberrietan Biotinidasa Baheketa jarri zen abian.

2021ean, egiaztagiria berriz ebaluatzea lortu du Kimika Klinikoko Unitateak UNE-EN ISO 15189 arauaren menpe: “Laborategi klinikoak: kalitateari eta kompetentziari buruzko berariazko betekizunak”, Jaioberrien Baheketarako programan sartutako hamaika gaixotasun horietan inplikaturako markatzaile guztietarako.

Jarduera eta lorpen horiek guztiak EAEko Jaioberrien Baheketarako Programan diharduten oinarritzko eremuetako eta Osasun Publikoaren Zuzendaritzako profesional-taldearen emaitza dira.

Gainera, Osasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako teknikarien laguntza eduki dugu arazo informatikoak konpontzeko, eta erkidego honetan jaiotzak gertatzen diren zentro pribatu guztien laguntza ere bai. Balio beza honek guztiei eskerrak emateko.

PROGRAMAREN EGITURA



Osasun Publikoko zuzendaria: **Itziar Larizgoitia**
 Osasun Publikoko teknikaria: **Maria Jesús Lázaro**
 Laborategia: **N. Ferrero**
 M. García, A Ruiz
 C. Higón, A. Mendialdua
 Idazkaritza: **Juan P. Mandiola**
 Nieves Zabala

OINARRIZKO EREMUA BIZKAIA I (Basurtuko ospitalea)	OINARRIZKO EREMUA BIZKAIA II (Gurutzetako ospitalea)	OINARRIZKO EREMUA GIPUZKOA (Donostia ospitalea)	OINARRIZKO EREMUA ARABA
--	---	--	------------------------------------

Koordinatzailea: A. Aguirre
Idazkaria: A. Rodriguez

Koordinatzailea: A. Perez
Idazkaria: M. Pérez

**Koordinatzailea: M.A
Cortajarena**
Idazkaria: E. Sorarrain

Koordinatzailea: Idoya Martinez
Idazkaria: M. Martínez Francos

↖ ↗

KLINIKA PRIBATUAK ETA ESKUALDEKO
OSPITALEAK


JAIOPERRIEN SORTZETIKO GAIOTASUNAK BAHETZEKO PROGRAMA (Metabolopatiak)

1. JAIOPERRIAK

1.1. JAIOTZAK

2021ean, 14.512 haur jaio ziren guztira EAEn. 1. irudian agertzen denez, Bizkaian 7.081 haur jaio dira (% 48,79); Gipuzkoan, 5.262 haur (% 36,26), eta Araban, 2.169 (% 14,95).

1. irudia. EAEn jaiotako haurrak, lurralde historikoen arabera.



2020an baino 482 haur gutxiago jaio dira

1. taula. EAEn jaiotako haurren kopuruaren bilakaera, lurralde historikoen arabera. 2019, 2020 eta 2021

LURRALDEAK	2019	2020	2021
Araba	2.318	2.132	2.169
Bizkaia	7.977	7.510	7.081
Gipuzkoa	5.459	5.352	5.262
EAE	15.754	14.994	14.512

1.2.JAIOTZA-ZENTROAK

EAEn izandako jaiotzen banaketa, amaetxeen arabera:

ZENTROA		Jaiotza-kop.	%
Ospitale publikoak	Txagorritxu	2.158	14,87
	Basurtu	2.072	14,27
	Gurutzeta	3.854	26,55
	Donostia	3.217	22,16
	Debagoiena	412	2,84
	Zumarraga	631	4,35
	Mendaro	542	3,73
	GUZTIRA	12.886	88,77
Klinika pribatuak		1.534	10,57
Etxean		92	0,63
Beste erkidego batean		3	0,02
Atzerrian		1	0,01
Guztira		14.516	

Aurreko urteekin alderatuta, ehunekoak ez dira aldatu.

1.3.BAHEKETA EGINDA DUTEN 2021EKO JAIOBERRIAK

2021an jaiotako 14.516 haurretatik 14.440ri egin zitzaion baheketa. Gainerako 76 haurretatik, 70 hilik jaio ziren eta 6 bizirik: 5 Donostiako ospitaleko oinarrizko eremukoak dira, eta desadostasun informatua sinatu zuten; beste bat Arabako Ospitaleko oinarrizko eremukoa da, eta desadostasun informatua sinatu zuen.

1.4.ELIKADURA

2. taulan adierazi da 2021ean jaiotako haurrek jasotako elikadura mota.

2. taula. Elikadura-motaren bilakaera (egonaldian). 2019., 2020. eta 2021. urteak.

Elikadura	2019	2020	2021
Naturala (amagandiko edoskitzea soilik)	% 72	% 69	% 68
Artifiziala	% 10	% 10	% 10
Biak (amagandiko edoskitze mistoa)	% 16	% 17	% 19
Beste batzuk / Ez da jaso	% 2	% 4	% 2

Edoskitze naturala da, oraindik ere, elikadura-motaren ehunekorik handiena.

1.5.PISUA

3. taula. Haurtxoen ehunekoak jaiotzean zuten pisuaren arabera, jaioberri guztiak kontuan hartuta.

Pisua	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		GUZTIZKOAK	
< 1.500 g	14	% 0,65	63	% 0,89	36	% 0,68	113	% 0,78
1.500-2.500 g	131	% 6,04	378	% 5,34	240	% 4,56	749	% 5,16
<2.500 g guztira	145	% 6,69	441	% 6,23	276	% 5,24	862	% 5,94
≥ 2.500 g	2.024	% 93,31	6.640	% 93,73	4.987	% 94,76	13.651	% 94,04
Daturik ez	0	-	3	% 0,04	-	-	3	% 0,02
Jaioberriak guztira	2.169		7.084		5.263		14.516	

1.6.HAURDUNALDI-ASTEAK

Erditzeen % 94,45 haurdunaldiko 37-42. asteetan izaten dira (4. taula).

Aurre-erditzearen indizea (AE < 37 aste) jaitsi egin da aurreko urtekoaren aldean.

4. taula. Jaiotzen ehunekoa testatutako jaioberriekiko, haurdunaldi-asteen arabera.

Asteak	Jaiotza kopurua	%
< 28	40	% 0,28
28 - 32	107	% 0,74
33 - 36	645	% 4,44
<37 guztira	792	% 5,46
37 - 42	13.710	% 94,45
>42	2	% 0,01
Daturik ez	12	% 0,08
Guztira:	14.516	% 100,00

1.7. ERDITZE MOTA

5. taula. Jaioberrien ehunekoa, jaioberria nola zetorren kontuan hartuta eta erditze motaren arabera.

Agerpena	Kopuru a	%	Mota	
			Sektore publikoa Kopuru a	Sektore pribatua Kopuru a
Buruzkoa	13.905	% 95,79		
Ipurdizkoa	451	% 3,11		
Zeharkakoa	53	% 0,37		
Beste batzuk	42	% 0,29		
Daturik ez	65	% 0,45		
Guztira	14.516			
			Sektore publikoa	Sektore pribatua
			Kopuru a	%
			Kopuru a	%
Baginala	11.054	% 85,78	1.170	% 76,27
Abdominala	1.829	% 14,19	329	% 21,45
Daturik ez	3	% 0,02	35	% 2,28
Guztira	12.886		1.534	

Sektore pribatuan sabel-bideko erditze gehiago izaten dira sektore publikoan baino (% 21,45 eta % 14,19 hurrenez hurren).

1.8. AMAREN ADINA


Jaiotza gehienak 30-34 urteko amen artean izan da (5.043 jaiotza, % 34,74); eta, haien ondoren, 35-39 urtekoen taldean (4.894 jaiotza, % 33,71). 20 urtetik beherako amen kopurua aurreko urtekoaren parekoa da (6. taula).

6. taula. EAEn jaiotako haurren proportzioa, amaren adinaren arabera.

Adina	Guztira	%
<=14	5	% 0,03
15	1	% 0,01
16	13	% 0,09
17	32	% 0,22
18	43	% 0,30
19	70	% 0,48
20-24	715	% 4,93
25-29	1.907	% 13,14
30-34	5.043	% 34,74
35-39	4.894	% 33,71
>=40	1.587	% 10,93
Daturik ez	206	% 1,42
GUZTIRA	14.516	

2. irudia. Jaiotzak amaren adinaren arabera

%



2. EGINDAKO JARDUERA ANALITIKOAK

2.1. TESTATUTAKO JAIOBERRIAK

2021ean, bizirik jaiotako 14.440 haurtxoen laginak aztertu dira. Haietatik, 14.436 EAeko zentroetan zein etxeetan jaio dira, eta 4 beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian. Hau da Programaren oinarritzko eremuen araberrako jatorria:

7. taula. EAEn testatutako jaioberriak.

Oinarritzko eremua	Kopurua
Araba	2.155
Basurtu	3.187
Gurutzeta	3.863
Gipuzkoa	5.235
Guztira	14.440

2.2. ZEHAZTAPEN ANALITIKOAK

174.216 zehaztapen analitiko egin dira laborategian, EAEn aurkitutako kasuen detekzioari eta jarraipenari dagozkienak (8. taula), eta 91.512 zehaztapen analitiko, 5.562 Nafarroari dagozkionak eta 3.370 Kantabriari.

8. taula. EAEn egindako zehaztapen analitikoen banaketa, hipotiroidismoa, hiperfenilalaninemia, fibrosi kistikoa, MCAD, ZFG, LCHAD, GA_1, MSUD, homozistinuria eta azidemia isobalerikoa detektatzeko eta horien jarraipena egiteko.

Zehaztapena	Kopurua
Fenilalanina paperean	14.450
Fibrosi kistikoaren test genetikoa (FKren mutazioak)	123
Tripsinogeno immunoerreaktiboa	14.456
Tripsinogenoa 21 egunetara (TIR 2)	15
Tiroxina paperean	14.664
Tirotropina paperean	14.898
Hemoglobinen aldaerak	14.443
C5 Isobaleril karnitina	14.445
Metionina	14.463
3-hidroxi palmitoil karnitina	14.445
C5DC Glutaril karnitina	14.442
Hemoglobinak 5 hilabetetara	4
Leuzina	14.462
C8	14.448
Biotinidasa	14.458
GUZTIRAKOAK	174.216

2.3. METODOAK

Jarrian, zehaztapan analitikoak egiteko eta haien balio diskriminatzaileak ateratzeko erabilitako metodoak laburbiltzen dira

	<u>Erabilitako metodoa</u>	<u>Eten-puntua</u>
Fenilalanina	Tandem erako masa-espektrometria	151.5 µmol/L
Tirosina	Tandem erako masa-espektrometria	178.6 µmol/L
TSH	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	10 µU/mL
Tiroxina (T4) guztira	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	6 g/dL baino gutxiago edo 20 g/dL baino gehiago
C8, C5, C5DC, Met, Leu, C16-OH	Tandem erako masa-espektrometria	0,5, 0,79, 0,37 µmol/L 42, 263, 0,07 µmol/L, hurrenez hurren
Tripsinogenoa (TIR)	Fluoreszentzia denbora atzeratuan	65 ng/ml
FQ mutazioak	Kit Elucigene; 50 mutazio	
Zelula faltziformeen gaixotasuna (ZFG)	Kromatografia likidoa	
Biotinidasa	Fluorimetria	0.5 pertzentila

2.4.BESTE LAGIN BAT ESKATZEA

Beste lagin bat eskatzeko apartatuan, bereizketa hau egiten da:

2.4.1. Retesting indizea

Edozein arrazoiengatik, berriz eskatutako lagin-kopurua zein den adierazten du, inpregnazio txarragatik izan ezik.

Hiperfenilalaninemia

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	2	1	3	
< 2.500 g	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	0	2	1	3	0,02

Sortzetiko hipotiroidismoa (TSH)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	7	8	5	10	30	
< 2.500 g	1	-	4	2	7	
GUZTIR A	8	8	9	12	37	0,25

Sortzetiko hipotiroidismoa (T4 guztira)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	1	4	4	12	21	
< 2.500 g	-	1	1	5	7	
GUZTIR A	1	5	5	17	28	0,19

Kate ertaineko AcilCoA deshidrogenasaren urritasuna (MCADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	0	1	2	3	6	
< 2.500 g	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	1	2	3	6	0,04

Homozistinuria

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	-	1	
< 2.500 g	1	-	-	-	1	
GUZTIR A	1	0	1	0	2	0,01

Azidemia isobalerikoa

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	1	1	-	2	
< 2.500 g	-	-	1	-	1	
GUZTIR A	0	1	2	0	3	0,02

1. motako azidemia glutarikoa (GA 1)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	-	1	-	1	
< 2.500 g	-	-	-	-	-	
GUZTIR A	0	0	1	0	1	0,01

Astigar-jarabe gisako gerneruaren gaixotasuna

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	1	-	1	1	3	
< 2.500 g	-	1	-	-	1	
GUZTIR A	1	1	1	1	4	0,03

Kate luzeko Azil Co A deshidrogenasaren eskasia (LCHADD)

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	1	1	-	-	2	
< 2.500 g	-	-	-	1	1	
GUZTIR A	1	1	0	0	3	0,02

Fibrosi Kistikoa TIR 2 (TIR>100 ng/ml) eta test genetikoa = 0

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	2	4	5	4	15	
< 2.500 g	-	-	-	-	0	
GUZTIR A	2	4	5	4	15	0,10

Biotinidasa-eskasia probablea

Pisua	Araba	Basurtu	Gurutzet a	Gipuzkoa	Kopurua	%
≥ 2.500 g	-	2	9	4	15	
< 2.500 g	-	-	1	-	1	
GUZTIR A	0	2	10	4	16	0,11

2.4.2. Inpregnazio txarra

Inpregnazio txarratik guztira baztertutako laginak 17 izan dira (% 0,12); behera egin du 2020ko proportzioarekiko (% 0,15).

Oinarrizko eremua	Pisua ≥ 2.500 g	Pisua < 2.500 g	Kopurua	%
Araba	-	1	1	% 0,01
Basurtu	2	-	2	% 0,01
Gurutzeta	-	-	0	% 0,00
Gipuzkoa	14	-	14	0,10%
GUZTIRA	16	1	17	0,12%

2.5.DETEKTATUTAKO KASUAK

9. taulan, detektatutako kasuak zerrendatzen dira, oinarrizko eremuaren arabera, kontuan hartuta hasierako behin betiko diagnostikoa.

9. taula. EAEn detektatutako gaixotasun endokrino-metabolikoen kopurua.

Gaixotasuna	Araba	Basurtu	Gurutz eta	Gipuzkoa	Kopuru a guztira
Sortzetiko hipotiroidismo primario iraunkorra	3	-	1	2	6
Sortzetiko hipotiroidismo sekundarioa eta tertziarioa	-	-	1	-	1
Hipertirotropinemia iragankorra	-	-	2	-	2
Hipotiroxinemia goiztiarra	-	3	-	-	3
Hipotiroxinemia iragankorra >1.500 g-ko pisuarekin	1	3	3	1	8
Hipertiroxinemia iragankorra	1	1	2	-	4
Hiperfenilalaninemia iraunkorra-PKU klasikoa	-	-	1	1	2
Hiperfenilalaninemia iraunkor onbera	-	-	1	-	1
Fibrosi kistikoaren eramailea	1	1	1	4	7
Fibrosi kistiko klasikoa	-	-	-	4	4
Fibrosi kistiko negatiboa TIR >65 eta test genetikoa=0	25	20	38	27	110
Zelula faltziformeen gaixotasuna (FS, FSC, FC)	1	1	-	-	2
ZFGaren eramailea (fenotipoa FAS, FAC)	31	18	28	30	107
Biotinidasa-ekaskia	-	1	-	-	1
LCHADD	-	-	-	1	1
GUZTIRA	63	48	78	70	259

Fibrosi kistikoa

Testatuta	14.440
TIR >65 ng/ml 48 h	121 (0.84%)
2 mutazio	3
1 mutazio	8
0 mutazio	110
TIR 2 (21 egun)	15 (% 0.10)
Izerdiaren testa	12 (0.08%)

Detektatutako mutazioak

delF508	7
711TH 7T/9T	1
R347H	1
R1162X	1
R1066C	2
G542X	2
Guztira	14

2.6.ERANTZUN-DENBORAK BAHEKETAN

Hurrengo taulan, programaren erantzun-denborak ikusten dira bizi-egunetan, screeningeko etapa bakoitza kontuan hartuta; hau da, lagina hartzea, laborategian jasotzea eta emaitzak igortzea.

10. taula. Erantzun-denborak bizi-egunetan, oinarrizko eremuaren arabera, mediana eta tarte-eskala gisa adierazita.

OINARRIZKO EREMUA	Lagina hartzea	Laborategian jasotzea	LEHEN EMAITZAK					
			TIR (ng/mL)	TSH (μU/mL)	T4 (μg/dl)	PHE, C8, C10, C16, MET, LEU, C16-OH, C5, C5DC (μmol/L)	FN	BTNDASE
BIZKAIA I (Basurtu)	2(1 - 8)	4(2 - 11)	5(3 - 13)	5(3 - 13)	5(3 - 13)	5(3 - 15)	5(3 - 13)	5(3 - 12)
BIZKAIA I (Klinika pribatuak)	2(0 - 5)	5(3 - 33)	7(4 - 34)	7(4 - 34)	7(4 - 34)	7(4 - 34)	7(4 - 34)	7(4 - 34)
BIZKAIA I Etxean	4(2 - 8)	5(3 - 11)	7(4 - 14)	7(4 - 13)	7(4 - 13)	8(4 - 19)	7(4 - 13)	7(4 - 13)
BIZKAIA I Atzerrian	38	39	40	40	40	40	40	40
BIZKAIA II (Gurutzetan)	2(1 - 8)	4(3 - 13)	5(4 - 14)	5(4 - 14)	5(4 - 14)	5(2 - 14)	5(4 - 14)	5(4 - 14)
BIZKAIA II Etxean	3(2 - 5)	4(3 - 7)	6(4 - 8)	5(4 - 8)	5(4 - 8)	6(4 - 8)	6(4 - 8)	5(4 - 8)
BIZKAIA II Beste erkidego batean	5(2 - 7)	6(3 - 9)	6(4 - 9)	6(4 - 9)	7(4 - 9)	6(4 - 9)	6(4 - 9)	6(4 - 9)
BIZKAIA II Atzerrian	-	-	-	-	-	-	-	-
GIPUZKOA (ospitale publikoak)	2(0 - 9)	4(2 - 11)	6(3 - 15)	6(3 - 15)	6(4 - 15)	6(3 - 17)	6(3 - 15)	6(3 - 15)
GIPUZKOA (klinika pribatuak)	2(1 - 11)	5(3 - 15)	6(4 - 16)	6(4 - 16)	7(4 - 16)	6(4 - 16)	6(4 - 16)	6(4 - 16)
GIPUZKOA Etxean	4(2 - 12)	6(3 - 15)	7(4 - 16)	7(4 - 16)	7(4 - 16)	7(4 - 16)	7(4 - 16)	7(4 - 16)
GIPUZKOA Atzerrian	-	-	-	-	-	-	-	-
ARABA (ospitale publikoak)	2(0 - 6)	4(3 - 9)	5(4 - 11)	5(4 - 10)	5(4 - 12)	5(4 - 14)	5(4 - 11)	5(4 - 10)

ARABA Etxean	3(2 - 5)	4(3 - 6)	6(4 - 10)	6(4 - 10)	6(4 - 10)	6(4 - 10)	6(4 - 10)	6(4 - 10)
ARABA Atzerrian	-	-	-	-	-	-	-	-

2.7.BERRESPENA

11. taulan, bizi-egunak zerrendatzen dira kasua atzeman eta berretsi den unean, jatorrizko oinarritzko eremuaren arabera.

11. taula. Oinarritzko eremuetan detektatutako kasuen erantzun-denborak, bizi-egunetan.

GAIXOTASUNA	KASUAK	Oinarritzko eremua	1. emaitza	Berrespena
SORTZETIKO HIPOTIROIDISMO PRIMARIO IRAUNKORRA	3	Araba	8 6 6	15 8 -
	1	Gurutzeta	5	11
	2	Gipuzkoa	6 9	8 16
	Guztira: 6			
SORTZETIKO HIPOTIROIDISMO SEKUNDARIOA ETA TERTZIARIOA	1	Gurutzeta	5	9
	Guztira: 1			
FIBROSI KISTIKO KLASIKOA	4	Gipuzkoa	7 8 6 9	16 17 7 20
	Guztira: 4			
	1	Gipuzkoa	6	9
	1	Gurutzeta	4	10
Guztira: 2				
ZELULA FALTZIFORMEEN GAIXOTASUNA (FS, FSC)	1	Araba	7	-
	1	Basurtu	9	-

	Guztira: 2			
BIOTINIDASA-ESKASIA	1	Basurtu	7	10
	Guztira: 1			
LCHADD BERRESPENA	1	Gipuzkoa	7	12
	Guztira: 1			
	GUZTIRA:			
	17			

EAEko jaioberrien entzumen-baheketako programa 2021. urtea.

Haurtzaroko hipoakusia edo entzumen-galera osasun-arazo garrantzitsu bat da, hizkuntzaren garapena eta ikasketa baldintzatzen baititu, eta, beraz, kaltetutako haurren garapen emozionalean eta sozialean eragiten du. Jaioberrien eta edoskitzaileen entzumen-galeraren prebalentzia bizirik jaiotako 1.000tik 1,5 eta 6,0 kasutan kalkulatzen da (OMEren datuak, entzumen-galeraren mailaren arabera).

Euskadin, haurren gorrieraren detekzio goiztiarraren programa 2003an hasi zen, eta amatasun-eremua duten zentroetan (publikoetan zein pribatuetan) mailaka ezarri zen. Baheketa-proba gisa, otoemisio akustikoak ezarri ziren, eta hainbat fasetan egin ziren, positibo faltsuak saihesteko. 2012. urtean, programa berriz diseinatu zen, eta otoemisio akustiko ebokatuarekin egindako baheketa entzumen potentzial ebokatu automatizatuekin ordezkatu zen; azken hori nazioartean *gold* estandartzat hartuta dago, jaioberriaren entzumen-bide osoa miazteko aukera ematen baitu.

Entzumen-baheketako programaren barruan baheketako I. fasea sartzen da. Fase hori amatasun-eremua duten zentro publiko eta pribatu guztietan egiten da. Baheketaren I. fasea gainditzen ez duten jaioberriak II. fasera bidaltzen dira, diagnostiko eta jarraipenerako, entzumen-galerako kasuen erreferentzia-zentroetara, Osakidetza lau Unibertsitate Ospitaletako ORL-zerbitzuetara.

I. faseko emaitzak

Euskadiko jaioberrien entzumen-baheketako programak estaldura handia (% 99,92) lortu du I. fasean (ikus taula). Datu hori 2020. urtekoaren oso antzekoa da (% 99,86).

Halaber, fase honetan detektatutako mota bateko eta besteko entzumen-galeren (aldebakarrekoa edo aldebikoa) kasuen ehunekoa % 0,76 izan da (2020an % 0,77).

Taula. I. faseko emaitzak (baheketa). 2022. urtea

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2021	EAE 2020
Programaren estaldura (%)	99,81	100	100	99,89	99,92	99,86
Entzumen-proba normalak	2.132	3.177	3.821	5.195	14.325	14.791
Entzumen-proba normalak (%)	99,11	99,68	98,91	99,25	99,27	99,23

Alde bateko hipoakusia zuten jaioberriak	10	7	34	23	74	80
Alde bateko hipoakusia zuten jaioberriak (%)	0,46	0,22	0,88	0,44	0,51	0,54
Bi aldeetako hipoakusia zuten jaioberriak	9	3	8	16	36	35
Bi aldeetako hipoakusia zuten jaioberriak (%)	0,41	0,09	0,20	0,30	0,25	0,23
I. fasean emaitza anormala duten jaioberriak (%)	0,88	0,31	1,08	0,74	0,76	0,77

II. faseko emaitzak (diagnostikoa).

Diagnostikoaren II. fasean, 2021ean % 99,09ko estaldura lortu zen, 2020ko antzeko zifra (% 99,13). Kasu batean fase hori ezin izan zen Osakidetza ospitaleetan egin, ez zelako bertaratu. Azkenik, aldebakarreko edo aldebiko entzumen-galera zuten 40 kasu detektatu ziren (aztertutako jaioberrien 1.000tik 2,77; ikus taula). 2020an baino zifra handixeagoak (33 kasu eta 1.000tik 2,21).

Taula. II faseko baheketaren emaitzak (diagnostiko). 2021. urtea.

	ARABA	BIZKAIA I (Basurtu)	BIZKAIA II (Gurutzeta)	GIPUZKOA	EAE 2021	EAE 2020
II. fasean aztertutako kasuen kopurua	19	10	42	38	109	114
EAE n egin ez diren II. faseak*	0	0	0	0	0	1
Baheketaren estaldura (%)	100,0	100,0	100,0	97,43	99,09	99,13
Entzumen-proba normalak	11	3	28	26	68	81
Entzumen-proba normalak (%)	57,89	30,0	66,6	86,66	61,46	71,05
Alde bateko hipoakusia kasuen kopurua	1	5	10	7	23	13
Bi aldeetako hipoakusia kasuen kopurua	6	2	4	5	17	20
Hipoakusia II. fasean duten kasuak 1.000 jaioberriko	3,25	2,19	3,62	2,29	2,77	2,21

* Lekualdaketa, heriotza...